

# URTXINTXAK

**HAUR TALDEA :** Talde osoa, haurrak dira hirunaka

**TOKIA :** aterpean edo toki zabal batean.

**HELBURUA :** etxe batean sartu seinalea entzunez gero.

## AURKEZPENA

- Haurrak hirunaka dira : bi hurrek etxea osatzen dute eta hirugarrena etxearen barnean da.
- Haur batzuk etxerik gabe dira eta saiatuko dira etxeak lapurtzen.
- “urtxintxak kanpora” entzunez gero hasten dira kantatzen “promenatzen, promenatzen, promenatzen ari dira, promenatzen promenatzen oihanean urtxintxak”.
- Panderoa entzunez gero urtxintxak sartu behar dira etxe batean.
- Kanpoan gelditzen direnak galdu dute eta erraten dute “etxerik ez dut”
- Barnean direnak irabazi dute eta tokiz aldatzen dira hiru haurren artean. Urtxintxa bihurtzen denak erraten du “ni naiz urtxintxa”.

Hastapenean, haurrek uler dezaten jokoaren araua, ez dago urtxintxarik etxerik gabe. Erakaslea segur delarik araua ulertua izan dela, etxe bat puskatzen da eta hiru urtxintxa izanen dira etxerik gabe.

## ONDORIOAK :

- eguneroko bizian “ni naiz” egitura erabili.
- kanpoan eta barnean nozioak landu.
- Ezezkoa formarekin “rik” deklinabidea erabili beste egoera batean klasean.